

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
ADMINISTRAZIOA

2

ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA
ETA KIROL DEPARTAMENTUA

FA-KG-2025-0353 Foru Agindua, ekainaren 23koa, 2025eko Agustín Ugarte Sariaren deialdia egiten duena.

Departamentuko foru diputatuak honako foru agindu hau eman du gaur:

Diputatuen Kontseiluak, 2024ko apirilaren 23an egindako batzaraldian, Agustín Ugarte sariaren oinarri arautzaileak onetsi zituen. Oinarri horiek 2024ko maiatzaren 8ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren (88 zenbakia).

Oinarri orokorretako hamargarren puntuak ahalmena ematen dio garapenerako lankidetzaren arloan eskumena duen departamentuko foru diputatu titularrari, Agustín Ugarte sariaren urteko deialdiak onesteko, betiere oinarrietan aldaketarik egiten ez bada.

Hori horrela, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol diputatu honek,

ERABAKI DU

Lehenengo. Agustín Ugarte sariaren 2025eko deialdia egitea.

Hautagaiak aurkezteko epea 2025eko uztailaren 15ean amaituko da.

Aurkezpena Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol diputatuari zuzenduko zaio, eta, proposatutako hautagaiekin batera, eskutako abalak eta merezimenduak aurkeztu beharko dira, oinarri orokorretako 4. puntuan ezarritakoarekin bat etorritik.

Hautagaien aurkezpena bitarteko elektronikoen bidez bidali beharko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik barrena (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>), erregistro elektronikoen bidez.

Bigarren. Foru Agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Foru Agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak Foru Agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsua aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2025eko ekainaren 23a.—Iñaki Sainz Paredes, idazkari teknikoa. (4736)

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE CULTURA, COOPERACIÓN,
JUVENTUD Y DEPORTES

Orden Foral FA-KG-2025-0353, de 23 de junio, por la que se convoca el Premio Agustín Ugarte 2025.

La diputada foral del Departamento, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 23 de abril de 2024, aprobó las bases reguladoras del Premio Agustín Ugarte. Las bases fueron publicadas el 8 de mayo de 2024 en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa (número 88).

La base décima faculta a la diputada foral titular del departamento competente en materia de cooperación al desarrollo para aprobar las convocatorias anuales del Premio Agustín Ugarte, siempre que no se produzcan modificaciones de las bases.

En su virtud, esta diputada de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes,

RESUELVE

Primero. Convocar el Premio Agustín Ugarte 2025.

El plazo de recepción de candidaturas finalizará el 15 de julio de 2025.

La presentación se realizará dirigida a la diputada del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes. La candidatura propuesta se acompañará de los avales requeridos y los méritos que en ella concurran, conforme a lo establecido en la Base 4.

La presentación deberá realizarse por medios electrónicos a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>), mediante el registro electrónico.

Segundo. Ordenar la publicación de la presente Orden Foral en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Los interesados podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, los particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta diputada foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

San Sebastián, a 23 de junio de 2025.—El secretario técnico, Iñaki Sainz Paredes. (4736)